

Orona Get Up' sarien 5. Edizioa

2014/11/14

ORONAKo Giza Baliabideetako zuzendaria den Mikel Tolosak hasi du bosgarren edizio honetako sarien banaketaren ekitaldia, eta, adierazi duenez, "ekimen hau oso garrantzitsua da unibertsitateekin loturak sendotzen jarraitzeko, ORONAn sartzeko talentua detektatzeko bide gisa, eta ORONAK berrikuntzarekin eta etorkizunarekin duen konpromisoa indartzen jarraitzeko". Pertsonen eta etorkizunaren aldeko apustu horren erakusle, Mikel Tolosak Orona Fundazioaren proiektua aipatu du: irabazi asmorik gabeko erakunde gisa sortu da, Oronaren alderdirik humanoena ordezkatzeko, ORONA osatzen duten pertsonen zerbitzua emateaz gain, oro har gizartea zerbitzatzeko saiakeran.

Barrura begirako zerbitzu moduan, Orona Fundazioa ORONA osatzen duten pertsona guztien garapenerako zutabea da, prestakuntza perspektiba integral batetik lantzen duena.

Kanpora begirako zerbitzu moduan, berriz, Orona Fundazioa lau lan ildo handitan egituratzen da, laurak ORONAREN garapenaren helburuari lotuta: garapen instituzionala, nazioarteko garapena, hezkuntzaren garapena eta ingurunearen garapena.

Inge Isasak, Orona EICko (Elevator Innovation Centre) Ikerketa Kudeaketaren arlotik, "bosgarren edizioan parte hartu duten ikasleek egindako esfortzua eta aurkeztutako proiektuen kalitatea" nabarmendu du, eta parte hartu izana eskertu du.

Orona Get Up sariak ORONAK unibertsitateko karrera amaitu eta ikertzen diharduten gazteentzako bultzada izan nahi dute, errekonozimendua erakutsiz proiektuen zati batean ikerketa sartu badute, eta, aldi berean, garraio bertikalaren, hiri mugikortasunaren eta eraikinen kudeaketa energetikoaren arloetan nobedadeak eskaini badituzte.

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko sarituak Diego Garavito (Unibertsitate Masterra Produktu eta Zerbitzuen Diseinu Estrategikoan) eta Mikel Ruano (Unibertsitate Masterra Energia eta Potentzia Elektronikan) izan dira eta 2. eta 3. sariak eskuratu dituzte.

2. saria

2. sariari 1.000 euro egokitu zaizkio, eta Mondragon Unibertsitateko Diego Garavito Aguilari eman diote, "Modernitatea aginte panelean zehar eta soinua" izeneko proiektuaren garapenagatik. Lan horretan erabiltzaileak igogailuarekin duen interakzioa aztertu da, hainbat lan ildo definitu ahal izateko aukerak bilatzeko, balio erantsia emango duten kontzeptu berritzaileak garatzeko, eta Orona marka indartzeko. Gainera, amaierako kontzeptuen prototipoak egin dira. Igogailuen Industria Diseinua elementu estrategikoa da Oronarentzat.

3. saria

Mondragon Unibertsitateko Mikel Ruano Sanzek eraman du 3. saria, "Orona makinaren konfigurazaila", 500 €-koa. Proiektua barne erabilerarako tresna bat diseinatzera zuzendu da, instalazio jakin batean igogailuaren eragintza hautatzen eta diseinatzen lagunduko duena.

ORONAK eskerrak eman dizkie parte hartzaile guztiei egindako ahaleginagatik, eta ikerketaren eremuan "esfortzu eta grina berarekin" lanean jarraitzeko eskatu die, etorkizunean aukera profesionalik onenak lortzeko bide gisa.

